



ZERBITZU ETA PRESTAZIO SOZIALAK IKUSKATZEKO ETA KONTROLATZEKO 2017-2019RAKO PLAN OROKORRA

Edukia

1. Sarrera	3
2. Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorra.....	5
3. Planaren banaketa	8
Gizarte Zerbitzuetako zentroak ikuskatzea, gainbegiratzea eta kontrolatzea.....	8
Zentroetako Arreta eta Zaintzak ikuskatzea	12
Etxean ematen diren zaintzak ikuskatzea	15
Prestazio sozialen ikuskapena.....	17
Hitzarmenak eta diru-laguntzak ikuskatzea	19
4. Programaren jarraipena eta ebaluazioa.....	20
5. Baliabideen eskaintza.....	23
6. Plana ezartzeko egutegia	27

1. Sarrera

Azken urteetan, Gizarte Zerbitzuak gure gizartean osoko herritartasuna bermatzeko neurri- eta tresna-multzoa bihurtzen ari dira. Nolabait, Gizarte Zerbitzuak Ongizate Estatuko laugarren zutabea dira, Ongizate Estatuaren oinarria baitira Hezkuntzarekin, Osasunarekin eta Pentsio Sistemarekin batera.

Ikuspuntu horretatik abiatuz, **Gizarte Zerbitzuak kolektibo ahulenei** zuzendutako programa-multzoa izatetik haratago garatzen dira, eta hala, Gizarte Zerbitzuak bizitzako uneraren batean edo bestean horiek behar dituzten **herritar guztientzat eskuragarri** dauden zerbitzuak dira, herritar horien duintasuna edo herritar-izaera osoa kaltetu gabe.

Testuinguru horretan, Gizarte Zerbitzuei zuzendutako baliabide publikoak eratzen eta hazten doaz, eta beharrezkoa da prestazio sozialak **egoki erabiltzen direla bermatzeko** prozedurak ezartzea, horien **eraginkortasuna hobetzea** eta gizarte zerbitzu eta prestazioak **gehiegikeriaz erabiltzea saihestea**.

Bizkaiko Foru Aldundiak sistemako baliabideak egoki erabiltzen direla jarraitzeko eta ebaluatzeko **konpromisoa** du, eta hala, **bermatu egin nahi du zerbitzu eta prestazio sozialak behar dituztenei bideratzen direla**. Baliabide publikoak aplikatzean erantzukizuna eskatzen duen ariketa da, eta bereziki, justizia sozialeko kontua da.

Hala, Bizkaia Goazen 2030 estrategiaren 3. ardatza hauxe da: "3. Ardatza. Bizkaia modernoa, hurbilekoa eta arduratsua", eta bere helburua "Iruzurraren aurka borrokatzea" da, iruzur fiskalaren aurkako eta laguntza sozialen jarduketan plan espezifikoekin bitartez.

Aurrekoa gorabehera, Bizkaiko Foru Aldundiak aplikatu beharreko araudia betetzen dela bermatzeko konpromisoa du, eta horrekin lotuta, zerbitzuen hobekuntza iraunkorra hobetzeari ekarpenak egin nahi dizkio, eta bermatu egin nahi du Gizarte Zerbitzuen alorrean erabiltzaileen eskubideak errespetatu egiten direla. Horretarako, **Gizarte Zerbitzuen alorrean ikuskapen- eta kontrol-funtzioa** betetzen du Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean¹, eta aurrekoetan emandako eskumenekin bat eginez.

Tradizionalki izan duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuetako **erakunde eta zentroek** beraien eraginpeko legezko arauak ezarritako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko funtzio ikuskatzaile horretaz gain, gizarte zerbitzuak kontrolatzeko lanak plan espezifikoak dituzten zerbitzu kudeatzaileek garatu dituzte sistematikoki aldizkako ordainketadun prestazio bakoitzeko, nagusiki urtero. **Gaur egun kontroleko, jarraipeneko eta ikuskapeneko funtzio** hori sendotu eta koordinatu nahi da Gizarte Zerbitzuen alorrean, lankidetzan arituz eta Foru Ogasuneko ikuskapen zerbitzuen esperientzia aprobetxatuz, honako ezaugarriak dituen errealitate bati erantzuna emateko:

- **Elkarreragingarritasunak eta erakundeen arteko lankidetzak** planteatutako aukerak, jarraipenaren kontrola eta eraginkortasuna ahalbidetuko dutenak.
- **Arreta emateko konplexutasun handiagoa duten egoerak** etengabe agertzen doaz, bai maila sozialetik baita zaintza-mailatik ere, eta etorkizunean gehiago sortuko dira. Hala, arretarako erabiltzailearen funtzio nagusia aitortu behar da eta **emandako zaintzen kalitatea eta egokitasuna bermatu behar dira**.

¹ 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. "41. artikulua- Foru Aldundiei buruzkoa. Foru-organoek eskumena izango dute, bakoitzak bere lurraldean, eginkizun hauek betetzeko: 10.- Dagokien lurraldean kokaturik dituzten jabetza pribatuko zerbitzu, zentro eta erakundeak baimentzea, eta beharrezkoa bada, homologatzea, eta, zerbitzu, zentro eta erakunde horiek direla-eta, edo beren titulartasunpekoak direla-eta, ikuskaritza-lanak egitea eta zehapen-ahalmena erabiltzea, non eta ez diren sartzen hurrengo artikulua 10. paragrafoan aurreikusitako ikuskapen-eskumenetan".

- Dependentziaren alorrean, nagusiek **etxean geratzeko** duten gogoia, edo hala badagokio, "etxean bezala" egon daitezkeen egoitza batean egoteko duten gogoia. Horretarako, azken urteetan garrantzizko **prestazio sozialak** sortu dira, bai onuradunen kopuruari dagokionez, baita baliabideen bolumenari dagokionez ere, eta horiek nagusiak beraien inguruan egoten jarraitzea ahalbidetzen dute. Horregatik, kontrol-eremua zentroetatik haratago joan behar da, etxeetaraino hain zuzen ere.
- Dependentziaren, desgaitasunaren eta bazterketaren alorreko aldizkako ordainketadun **prestazio sozialen eskaintza zabala** gehitzean eta eratzean, **horiek egoki erabiltzen direla bermatzeko jarraipen eraginkorra** egin behar da.

2. Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorra

Gizarte Zerbitzuen egungo errealitateari erantzuna emateko kontrol- eta jarraipen-funtzio hori sendotzeko helburuarekin sortu da 2017-2019 aldirako Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko Plan Orokor hau.

Urte anitzeko plan honen helburua zerbitzu eta prestazio sozialak ongi bideratzeko jarraipena eta ebaluazioa gauzatzeko jarduketaren oinarriak eta esparrua definitzea da.

Hala, **Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko 2017-2019 aldirako Plan Orokorraren** helburua hauxe da:

Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen zerbitzu eta prestazio sozialen baldintzak eta helburuak betetzeko jarraipena egitea modu sistematikoan eta koordinatuan

Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokor honek hauek planteatzen ditu:

- Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen zerbitzuak eta prestazioak kontrolatzea sustatzea, horien baldintzak eta erabilerak betetzen direla egiaztatuz.
- Ikuskapenaren bidez kontrol zehatzak egitea, Bizkaian eskaintzen diren Gizarte Zerbitzuen kalitatea bermatzeko: Araudia betetzen dela egiaztatzea eta emandako arretaren eta zaintzen kalitatearen jarraipena egitea.
- Kudeaketa aurreratua, elkarreragingarritasuna eta administrazioen arteko datuen trukaketa sustatzea kontrolerako mekanismo berritzaileak txertatzeko, Gizarte Zerbitzuak lortzeko prozesuak sinplifikatzeko, erantzunen eraginkortasuna hobetzeko eta kontrola gehitzeko.
- Funtzio ebaluatzailea eta pedagogikoa garatzea zentroyen funtzionamendua hobetzeko, horietan ematen den arretaren kalitatea gehitzeko neurriak ezarriz.

Plan honen izaera integrala honako **jarduketa-multzoetan** egikaritzen da; multzo horiek Zerbitzu eta Prestazio Sozialen Ikuskapen eta Kontrolerako Plan Orokor honetan jasota daude;

1. Gizarte Zerbitzuak ikuskatzea, gainbegiratzea eta kontrolatzea:

Helburua: Zerbitzua emateko araubidea betetzea, hala badagokio², hitzartutako eskakizunetara egokitzea eta elementu ebaluatzailea eta pedagogikoa txertatzea.

2. Zentroetako arreta eta zaintzak ikuskatzea:

Helburua: Arreta Plan Indibidualizatuetan (API), Gizarte eta Hezkuntza Esku Hartzeko Planetan edo beste Gizarte Zerbitzuetako zentroetako Arreta Plan analogoetan ezarritako zaintzak jasotzen direla bermatzea.

3. Etxean ematen diren zaintzak ikuskatzea:

Helburua: Kalitatezko zaintzak ematen direla egiaztatzea eta gehiegikeria eta/edo tratu txarreko egoerak identifikatzea.

4. Prestazio sozialen ikuskapena:

Helburua: Prestazioaren onuraduna izaten jarraitzeko baldintzak izaten jarraitzen dutela bermatzea eta horien erabilera egokia bermatzea.

5. Hitzarmenak eta diru-laguntzak ikuskatzea:

Helburua: Diru-laguntza jasotako ekintzen helburuak eta sortutako inpaktua betetzen direla egiaztatzea.

Testuinguru horretan, Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan hau identifikatutako jarduketa-multzo bakoitzari egingo zaion planifikazio zehatz batean banatuko da, eta **hauek dira jarduketa-multzoen helburu espezifikoak.**

1. Inspección de Centros de Servicios Sociales

- Inspección de **la totalidad (100%) de los centros autorizados en el territorio** (centros con normativa reguladora para la prestación del servicio) anualmente.

2. Inspección de la Atención y Cuidados en Centros

- Inspección de un **10% anual de beneficiarios/as de cuidados en centros de atención a la dependencia**, a través del seguimiento de los planes de atención en centros de servicios sociales.
- Inspección de un **100% anual de los casos de menores con medida de protección adoptada**, a través de los Planes de Intervención Socioeducativa.

3. Inspección de Cuidados en el Hogar

- Inspección del **25% anual de hogares** perceptores de la Prestación Económica para los Cuidados en el Entorno Familiar.

4. Inspección de Prestaciones Sociales

- Revisión del **100% de las prestaciones** concedidas en relación a las Pensiones no contributivas (**PNC**) y las prestaciones reconocidas para la integración social de la persona con discapacidad (**LISMI**).
- Revisión del **100% de las prestaciones** concedidas para la Asistencia Personal (**PEAP**).
- Revisión del **25% de las prestaciones** concedidas por Cuidados en el Entorno Familiar (**PECEF**)
- Revisión del **100% de las prestaciones del Fondo de Bienestar Social**.
- Revisión del **100% de las Ayudas** Especiales de Inserción Social (**AEIS**).

5. Inspección de convenios y subvenciones

- Revisión del **100% de las justificaciones** de subvenciones.
- Revisión mediante **auditorías** del **10%** de las **subvenciones**, tanto de concurrencia como nominativas.
- Revisión de las **auditorías** y auditorías propias aleatorias a **convenios** que supongan hasta el **10%** del volumen.

3. Planaren banaketa

Hauek dira Ikuskaritza eta Kontroleko Plan Orokor honetan aurreikusitako helburuen xehetasuna, irismena eta jarduketan ezaugarriak jarduketa-multzo bakoitzerako.

Gizarte Zerbitzuetako zentroak ikuskatzea, gainbegiratzea eta kontrolatzea

Helburua:

Gizarte Zerbitzuetako ikuskapenaren bitartez Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako Zentroetan **araubidea betetzen dutela bermatu nahi da eta hala dagokionean², baita Gizarte Zerbitzuen prestazioa eratzten duten hitzarmenetako klausulak ere**. Hori guztia zentro horietan zerbitzu ezin hobea eman ahal izateko, zerbitzu edo zentro bakoitzerako araubidez eta konbentzionalki ezarritako baldintza materialetan eta funtzioletan oinarrituz.

Ikuskatuko diren **baldintza materialak eta funtzionalak** erabiltzaileen eskubideak eta arretaren kalitatea errespetatzen direla bermatzera zuzenduta daude, eta hala, nagusiki honako alderdiak beteko dituzte³:

- Baldintza fisikoak eta arkitektonikoak: kokapena, eraikuntza eta diseinua.
- Instalazioak eta ekipamendua.
- Baldintza higienikoak, sanitarioak eta segurtasunari lotutakoak.
- Barne-araubideko araudia; bere atalen barne egon beharko dira antolakuntzarako jarraibideak eta arretarako zuzentarauak, erabiltzaileen eskubideak bermatzera bideratutakoak.
- Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, zerbitzu- edo zentro-motaren arabekoak, eta horiek aplikatzen direla bermatzeko antolakuntza-jarraibideak, arreta berezia eskainiz parte hartzeko sistemai eta erreklamazioen araubideari.
- Langileei buruzko baldintza kuantitatiboak eta kualitatiboak.
- Zerbitzua jaso dutenen erregistro-liburua. Kontabilitate-araubidea eta prezioei buruzko araubidea.
- Gizarte eta kultura animazioko jardueren programak.
- Adinekoentzako zentroetan dauden eta narriadura kognitiboa duten pertsonen zuzendutako prebentzioarako eta tratamendurako jarduera-programak.

² Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago bazterketa egoeran dauden pertsonen Gizarte Zerbitzuak emateko zentroetako araubiderik. Kasu horietan, sinatutako hitzarmenetan zehaztutako baldintzak egiaztatuko dira.

³ 40/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko dena. 1. titulua, 4. artikulua.

Irismena:

Gizarte Zerbitzuetako Zentroetako ikuskapenak, gainbegiratzeak eta kontrolak baimena duten zentro guztiak barne hartzen ditu, eta hala dagokionean², lurraldeko zentro hitzartuak baita ere, eremu hauetan:

- Umeen babesak.
- Genero-indarkeria jasaten duten emakumeei arreta emateko zentroak.
- Adinekoen zentroak (etxebizitza komunitarioak, egoitzak eta eguneko zentroak).
- Arreta goiztiarreko zentroak (AGEHT– Arreta Goiztiarreko Esku Hartzerako Taldeak – definizioa dutenak)⁴.
- Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzendutako zentroak eta zerbitzuak².

Ikuskatuko diren zentroyen kopurua baimena duten zentroyena izango da (**baimena duten zentroyen % 100**), **urtero egingo dira ikuskapenak**⁵ eta kontrolatu egingo da hitzartutako baldintzen **% 25 betetzen dela, araututa ez dauden hitzartutakoak hain zuzen ere**².

Testuinguru horrekin aurreikusi da **2017an 344 ikuskapen inguru egitea**.

<i>2017ko ikuskapenen irismena</i>		Gizarte Zerbitzuetako Zentroyen ikuskapena		
		Zentro-kopurua⁶	Ikuskapenaren irismena	Ikuskapen-helburua
PERTSONA NAGUSIAK	Pertsona nagusientzako eguneko zentroak	53	% 100	53
	Pertsona nagusientzako egoitzak	147	% 100	147
	Etxebizitza komunitarioak	69	% 100	69
BABESGABETAS UNA	Adingabeko zentroak	49 ⁷	% 100	49
	Emakumeentzako egoitza zentroak	9	% 100	9
BAZTERKETA	Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitzak	37 ⁸	% 25	9
	Gizarte inklusiorako eguneko zentroa	31 ⁹ <small>Error! Marcador no definido.</small>	% 25	8
				344

Arreta Goiztiarreko Zentroyei dagokienez (AGEHT– Arreta Goiztiarreko Esku Hartzerako Taldeak – definizioa dutenak), zentro horien baimenak hasita daude, baina ez daude bukatuta (2017ko martxora arte), eta beraz, Plan honetara **2018tik aurrera atxikiko dira**⁹.

⁴ Ikuskapen Plan honetan 2018tik aurrera txertatuko da, 2016an hasitako baimena eta homologazioa bukatutakoan.

⁵ Zenbait zentro gehiagotan berrikusi behar dira, eta kasu horietan, aplikazioko araubidearen arabera gauzatuko da.

⁶ Baimena duten zentroak kontuan hartuz, 2015eko Ikuskaritza Txostenaren arabera.

⁷ Adingabeko Zentroak. Umeen Zerbitzuko datuen arabera: 47 zentro Bizkaian eta 2 zentro Bizkaitik kanpo.

⁸ Hitzartutako zentroak 2015eko ekitaldiko Gizarteratze Zerbitzuko memoriaren arabera.

⁹ 2018ko Arreta Goiztiarreko Zentroyen ikuskapenaren planifikazioari begira, homologatutako 40 zentroyen estimazioa aurreikusi da.

Erreferentziazko araudia:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 40/98 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuak baimendu, erregistratu, homologatu eta ikuskatzeko arauak ezarri dituena.
- 62/2002 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroaren sorkuntzari buruzkoa.
- 41/98 Dekretua, martxoaren 10ekoa, adinekoentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa.
- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituena.
- 13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa.

Zentroetako Arreta eta Zaintzak ikuskatzea

Helburua

Zentroetako zaintzak ikuskatzearen helburua Gizarte Zerbitzuetako zentroetako erabiltzaileek Arreta Plan Indibidualizatuetan (API) edo arreta plan analogoetan ezarrita dituzten zaintzak jasotzen dituztela egiaztatzea eta horiek egokitzea da.

Arretarako Planak oinarri hartuta, zentroetako zaintzak ikuskatzearen helburuak erabiltzaile bakoitzaren egoeraren jarraipena bermatzea eta jasotzen dituen prestazioen laguntzako kalitatea kontrolatzea izango dira.

Arreta Planen balorazio- eta jarduketa-eremuei aurreikusitako egiaztaketak egingo zaizkie eta hauek izango dira (menpekotasun-egoeran dauden pertsonen API kontuan hartuta):

- Eremu soziala: Erabiltzailearen gizarteko eta familiako harremanak mantentzea eta sustatzea, bai egoitzan, baita komunitatean ere.
- Eremu psikologikoa: Egoitzan dagoen pertsonaren ongizate afektiboa sustatzea bere gaitasun kognitiboetan, jokabidezkoetan, emoziozkoetan, harremanei loturikoan eta sozialetan lan eginez.
- Osasunaren eremua: Osasuna sustatzea, prebenitzea eta mantentzea, bizi-kalitaterik onena ematen saiatuz.

Irismena

Zentroetako zaintzen ikuskapena foru erantzukizunpeko **Gizarte Zerbitzuetako zentroetako erabiltzaileak** kontuan hartuz gauzatuko da.

Lehenengo fasean, 2017an zehar, Menpekotasun eta Desgaitasun alorrean zentroetan zaintzak ikuskatzeko multzoa jorratzea aurreikusi da, hain zuzen ere foru sareko zentro eta zerbitzu hauetako erabiltzaileei dagokienez:

- Nagusientzako egoitzak.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak.
- Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitzak.
- Nagusientzako eguneko zentroak.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak.
- Adingabekoentzako egoitzak.

Plan honen hurrengo faseetan jarduketa-multzo hau beste zentro batzuetara hedatzea aurreikusi da, desgaitasunarekin, bazterketarekin eta babesgabetasunarekin lotura duten zentroetara alegia.

Plan hau ezartzeko egutegiarekin bat eginez, 2018an zehar emandako arretaren eta zaintzaren alorrean ikuskapenak eta jarraipena egingo zaizkien zerbitzu berriak txertatzea aurreikusi da:

- Desgaitasuna; Zentro okupazionalak¹⁰.
- Bazterketa; bazterketa-egoeran daudenentzako egoitzak¹¹.
- Babesgabetasuna; Indarkeria jasan duten emakumeentzako egoitzak¹².

¹⁰ 1.405 plaza publiko zentro okupazioan. 2015eko datuak.

¹¹ 348 plaza publiko bazterketa egoeran dauden pertsonen egoitzetan. 2015eko datuak.

¹² 129 plaza publiko etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeen egoitzetan. 2015eko datuak.

Testuinguru horretan, foru sareko zentroetako arreta eta zaintzak ikuskatzearen helburu espezifiko **urteko jarraipen % 10 izango da.**

Hala, 2017rako, eta kontuan hartuz gaur egun 9.200 pertsona inguru daudela menpekotasun egoeran edo desgaitasunekin foru sareko zentroetan zaintzak jasotzen, aurreikusi da **922 jarraipen inguru egitea menpekotasun eta desgaitasun alorrean.**

Bestalde, adingabekoei zuzendutako egoitzetan egindako arreten ikuskapenak Gizarte eta Hezkuntza Esku Hartzerako Planen bitartez babesa duten **adingabekoen kasuen urteko % 100 beteko** du, eta hala, **1.175 jarraipen** inguru egingo dira.

<i>2017ko ikuskapen irismena</i>		<i>Zentroetako Arreta eta Zaintzak ikuskatzea</i>		
		<i>Zentro-kopurua¹³</i>	<i>Ikuskapenaren irismena</i>	<i>Ikuskapen-helburua</i>
ADINEKOAK	Nagusientzako eguneko zentroak	1.363	% 10	136
	Nagusientzako egoitzak	5.196 ¹⁴	% 10	520
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK	Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak	1.041	% 10	104
	Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak	1.401	% 10	140
	Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitzak	223	% 10	22
BABESGABETASUNA	Adingabekoentzako egoitzak	1.175 ¹⁵	% 100	1.175
				2.097

Plan honen hurrengo ezarpen-faseetan jarduketa-multzo honi atxikiko zaizkie arreta eta zaintzen jarraipen berriak zentro okupazionaletan, bazterketa zentroetan eta genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako zentroetan.

Erreferentziako araudia:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren agiria eta iradokizun eta kexen araubidea onetsi dituen.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea.
- 41/98 Dekretua, martxoaren 10koa, adinekoentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa.
- 11/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa; honen bidez, besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen foru zerbitzu publikoa araupetu da.

¹³ Plaza publikoen kopuruaren kontsiderazioa. GZ Bizkaiko maparen datuak (2015. urtea).

¹⁴ Nagusientzako egoitza-plazak. Guztizko 5.196 plazetatik kontsideratutako kopurua (140 AEI kontuan hartuz).

¹⁵ Babes-neurriak dituzten pertsona-kopurua da.

- 84/2014 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa; honen bidez arautu da menpekotasuna duten pertsonentzako egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko araubidea.
- 17/2014 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa; honen bidez mendekotasunean dauden pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa jasotzeko araubidea finkatu da eta zerbitzu horretako egonaldi iraunkorrerako baldintzak ezarri dira.
- Maiatzaren 29ko 27059/2009 Foru Agindua; honen bidez baldintza orokorrak onetsi ziren desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko arreta zerbitzuetako eta eguneko zentroetako plazak eskuratzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren zentroetan eta Aldundiarekin ituna edo kontratua duten zentroetan.
- 96/2005 Foru Dekretua, ekainaren 7koa; horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren zentroetan eta Foru Aldundiak itundutakoetan eta kontratatutakoetan desgaitasuna dutenei arreta emateko egoitzetako plazetan sartzeko sistema orokorra arautu da.
- 138/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena; horren bidez egoitzen foru sarean integratutako zentroen barne erregimeneko araudiaren eredia onartu da. Aurrekoa edo hori ordezkatzan duen araubidea.
- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituena.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren menpekotasuna duten nagusiei zuzendutako egoitza foru zerbitzuaren praktika onaren gidaliburua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arretarako Plan Indibidualaren eskuliburua.

Etxean ematen diren zaintzak ikuskatzea

Helburua

Etxeetako zaintzak ikuskatzearen helburua menpekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonak **kalitatezko zaintzak** jasotzen dituztela egiaztatzea da, eta **familia ingurunean tratu txarrik** ematen ez dela baieztatzea. Horrez gain, zaintzaileen egoera ere ebaluatu egingo da.

Modu espezifikoan, etxeetako zaintzen ikuskapenean honako alderdiak aztertuko dira:

- Menpekotasuna eta/edo desgaitasun duten pertsonen osasuna.
- Zaintzaileek gehiegizko karga izateko duten arriskua aztertzea.
- Zaintzaren ezaugarriak (zaintza-orduak, zaintzetako laguntzak eta/edo zaintza beste baliabide batzuekin konbinatzea).
- Zaintzarako laguntza teknikoak erabiltzea, etab.

Irismena

Etxeetako Zaintzak ikuskatzeko kontuan hartuko dira lurraldeko dependentzia eta/edo desgaitasun egoeran **dauden pertsonak**, eta **familia inguruan zaintzetarako prestazioa jasotzen dutenak (PECEF)**.

Ikuskapen-plan honen esparruan etxeko zaintzen jarraipena egiteko planteatutako helburua **urtero ematen diren prestazioen % 25 berrikustea da**. Hala, planean aurreikusitako lau urteko esparruan, emandako prestazio guztiak berrikusiko lirateke.

Gaur egun guztira 15.023¹⁶ pertsonak jasotzen dute familia inguruan zaintzak izateko prestazioa. Beraz, 2017rako helburua **urtero 3.756 bisita inguru egitea da** etxeetako zaintzak ikuskatzeko plan honen esparruan.

2017ko ikuskapenen irismena		Etxean ematen diren zaintzak ikuskatzea		
		Onuradunen kopurua	Ikuskapenaren irismena	Ikuskapen-helburua
DEPENDENTZIA/ AUTONOMIA	Familia-inguruko zainketengatiko prestazioa	15.023	% 25	3.756
				3.756

¹⁶ 2016ko irailean eguneratutako datuak, PECEF jasotzaile-kopurua

Erreferentziako araudia:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsoneri arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea.
- 179/2011 Foru Dekretua, azaroaren 29koa, familiaren ingurunean zaintzak emateko prestazio ekonomikoa arautu duena.
- Guberman-en eskala, zaintzaileen gainkarga detektatzekoa.
- EAEko adineko pertsonenganako tratu txarrak prebenitu eta hautemateko prozedura.

Prestazio sozialen ikuskapena

Helburua

Gizarte Prestazioen ikuskapena egitearen helburua **prestazioa jasotzen jarraitzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea eta prestazioak ongi erabiltzen direla egiaztatzea da:**

- Onuradunen baldintza espezifikoak berrikustea.
- Emandako prestazio ekonomikoa aurreikusitakoaren bat erabiltzen dela egiaztatzea.

Irismena

Prestazio Sozialen ikuskapena Bizkaiko Foru Aldundiak aldizkako ordainketekin eta Dependentsiaren, Desgaitasunaren eta Bazterketaren alorrean eskaintzen dituen izaera ekonomikoko prestazio sozial guztietan egingo da:

- Kotizazio gabeko pentsioak (PNC).
- Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko prestazioak (LISMI).
- Familia-inguruan zaintzak emateko prestazioa (PECEF).
- Banakako Laguntzarako Prestazioa (PEAP).
- Gizarte Ongizateko Funtsa (GOF)¹⁷, bazterketaren arloan.
- Inklusio Sozialeko Laguntza Bereziak (AEIS), bazterketaren alorrean.

Gaur egun, dependentsiaren arloan **22.005 onuradun daude** izaera ekonomikoko prestazio sozialak jasotzen **desgaitasunaren eta dependentsiaren eremuan** (PNC, LISMI, PECEF, PEAP).

Horrez gain, **bazterketaren** eremuan, 704 pertsona inguruk jasotzen dituzte prestazio sozialak¹⁸ (480 pertsonak Gizarte Ongizateko Funtsa jasotzen dute eta guztira 224 titular daude inklusio sozialerako laguntza berezien eremuan).

Kontuan hartuta orain dela urte batzuetatik hona PEAPekin, LISMIrekin, Kontribuzio gabeko Zergekin eta AEISekin lotutako prestazioen berrikuspena eta PECEFen eta FBSren berrikuspenen txertaketa, 2017rako **urtero 11.442 berrikuspen inguru** egitea aurreikusi da, prestazio-moten araberako egitura honi jarraiki:

¹⁷ Gizarte Zerbitzuak osatzeko aldizkako prestazio ekonomikoa, adin-nagusia dutelako edo desgaitasuna dutelako lanik ez duten eta bizitzako beharrezko beharrak asetzeko beste diru-sarrerarik ez duten pertsonen ematen zaizkienak.

¹⁸ 2016ko aurrekontu-memoria, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarena. 2016ko estimazioak.

<i>2017ko ikuskapenen irismena</i>		<i>Prestazio sozialen ikuskapena</i>		
		<i>Onuradunen kopurua</i>	<i>Ikuskapenaren irismena</i>	<i>Ikuskapen-helburua</i>
DEPENDENTZIA/ AUTONOMIA	PECEF	15.023	% 25	3.756
	PEAP	78	% 100	78
DESGAITASUNA	LISMI	140	% 100	140
	PNC	6.764	% 100	6.764
BAZTERKETA	FBS	480	% 100	480
	AEIS	224	% 100	224
				11.442

Erreferentziako araudia:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa; honen bidez Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi da.
- 179/2011 Foru Dekretua, azaroaren 29koa, familiaren inguruan zaintzak emateko prestazio ekonomikoa arautu duena.
- 103/2013 Foru Dekretua, uztailaren 23koa, laguntzaile pertsonalen prestazio ekonomikoa arautzen duena.
- 60/2011 Foru Dekretua martxoaren 22koa, Inklusio Sozialerako Laguntza Berezia arautzen duena, abenduaren 13ko 2007/2011 Foru Dekretuaren bidez aldatua.
- 129/1986 Dekretua, maiatzaren 26koa, Eusko Jaurlaritzarena; horren bidez, EAEko Ongizate Funtseko pentsioak arautzen dira.

Hitzarmenak eta diru-laguntzak ikuskatzea

Helburua

Hitzarmenak eta diru-laguntzak ikuskatzearen eta jarraitzearen helburua foru sektore publikoaren barne ez dauden erakundeak kontrolatzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorreko kargua duten finantzazioa jasotzen dutenenena alegia, mota guztietako hitzarmenak, diru-laguntzak edo laguntzak jasotzen dituztelarik, helburu hauetarako:

- Hitzarmenaren, diru-laguntzaren edo laguntzaren helburuarekin jasotako finantzazio publikoaren aplikazioa bermatzea.
- Funtz publikoen aplikazioa bermatzea legezkotasunari, eraginkortasunari, efizientziari eta ekonomiari dagokionez.

Irismena

2016ko ekitaldian emandako diru-laguntzen datuak kontuan hartuz, emandako diru-laguntzen % 10 berrikusiko da, edozein modalitatekoak direla (norgehiagoka edo librea edo izendun diru-laguntza), baita bestelako formuletan eraturakoak ere.

2016ko datuen araberako estimazioa	<i>Hitzarmenak eta diru-laguntzak ikuskatzea</i>		
	<i>Kopurua</i>	<i>Zenbatekoa</i>	<i>Ikuskapen-helburua</i>
NORGEHIAGOKAKO DEKRETUAK	2	1.519.008	151.901
LEHIA ASKEKO DEKRETUAK	5	9.045.746	904.575
IZENDUN DIRU-LAGUNTZAK	42	12.993.855	1.299.385
			2.355.861

Era berean, eta ikusirik Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 60. artikulua 1. paragrafoaren bidez eratu zen Gizarte Zerbitzuen hitzarmeneko formula bereziaren bitartez egikaritzen dela erantzukizun publikoko Gizarte Zerbitzuen prestazioa 100 milioi euro baino gehiagoan ehun zentro baino gehiagotarako, urtero ikuskatuko da 10 milioi euroko baliokide den hitzarmen-kopurua.

Erreferentziako araudia:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorreko 146 - 152 bitarteko artikuluen testu bategina, Bizkaiko Foru Aldundiaren auditoretza bidezko kontrola araupetu duena.
- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa; honen bidez Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra araupetu da

4. Programaren jarraipena eta ebaluazioa

Zerbitzuak eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorra **urte batzuetarako izango da, 2017-2019 aldian zehar garatzekoa**, eta bere helburu espezifikoak aurreikusitako jarduketa-multzo bakoitzarentzat garatutako jardueren **urteko ebaluazioaren** arabera berrikusiko dira.

Ikuskaritza eta Kontroleko Plan Orokorrean aurreikusitako bost jarduketa-multzoek **plan espezifiko** bat izango dute, eta horrek zehaztuko ditu ikusketa-mota bakoitzarentzako jarduketan xehetasunak, metodologiak, eta erabili beharreko ikuskaritza-protokoloak.

Aurreikusitako ikuskaritza-plan espezifikoaren egikaritzearen, jarraipenaren eta ebaluazioaren arduradunak hauek izango dira:

<i>Jarduketa-multzoak</i>	<i>Ikuskaritza-mota</i>	<i>Emaitzak / Mekanismoak</i>	<i>Arduraduna</i>
Gizarte Zerbitzuetako Zentroen ikuskapena	Datu-bilketa Bisitak <i>in situ</i>	Zirkularrak eta jarraibideak Aholkuak/ proposamenak araubidea egokitzeko edo praktika onaren gidaliburuak	Ikuskaritza Zerbitzua Gizarte Inklusioko Zerbitzua ²
Zentroetako Arreta eta Zaintzak ikuskatzea	Arreta Planak gainbegiratzea Gizarte eta Hezkuntza alorreko Esku Hartze Planak Gainbegiratzea Osasun-azterketak Analisi sozialak berrikustea	Arreta Planak aldatzeko proposamena Baliabideak eta zerbitzuak onuradunen beharretara egokitzea	Zentroen Zerbitzua ¹⁹ Umeen Zerbitzua Gizarte Inklusioko Zerbitzua
Etxean ematen diren zaintzak ikuskatzea	Bisitak Telefono bidezko jarraipena Barneko berrikustekak	Baldintzak eta emandako zaintzak betetzen direla egiaztatzea Gomendioak/proposamenak araubidera egokitzeko Zaintzan laguntzeari zuzendutako ekimenak identifikatzea	Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzua
Prestazio sozialen ikuskapena	Espedienteak berrikustea Datuak trukitzea/ Elkarreragingarritasuna	Baldintzak betetzen direla egiaztatzea. Hobetzeko eta araubidera egokitzeko gomendioak edo laguntzak emateko prozedurak	Prestazioen eta diru-laguntzen Zerbitzua ²⁰ Gizarteratze Zerbitzua
Hitzarmena eta diru-laguntzak ikuskatzea	Justifikazio-kontuak berrikustea. Entzunaldi-lanak	Hobetzeko eta araubidera egokitzeko gomendioak edo laguntzak emateko prozedurak	Auditoretza Zerbitzua ²¹

¹⁹ Zerbitzu honen esku egongo da Menpekotasun eta Desgaitasunaren alorreko Zaintzak ikuskatzeko multzoa, honako zentro/zerbitzuei dagokienez: Eguneko Zentroak eta menpekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak.

²⁰ Prestazio Sozialen ikuskapenaren barne sartzen dira Bizkaiko Foru Aldundiak Gizarte Ekintza Sailaren bitartez (LISMI, PNC, PECEF eta PEAP) eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailaren bitartez (FBS, AEIS) ematen dituen izaera ekonomikoko prestazio guztiak.

²¹ Hitzarmenak ikuskatzeko eta jarraitzeko lanak Ogasun eta Finantza Sailak egingo ditu.

Jarraipena

Planaren multzoen arteko koherentzia eta koordinazioa bermatzeko eta plana sustatzeko, Plana zuzentzeko Batzorde bat eratu da, eta hauek osatuko dute: Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemari erantzukizunekoak diren Gizarte Zerbitzuetako hiru Zuzendaritza Nagusi arduradunak, Gizarte Laguntzako Foru Institutuko Zuzendaritza eta Finantza, Aurrekontu eta Ondareko Zuzendaritza Nagusia.

5. Baliabideen eskaintza

Hauek dira Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketa-multzo bakoitzarentzako aurreikusitako baliabideen xehetasunak:

Gizarte Zerbitzuetako Zentroen ikuskapena

- Beharrezko baliabideak: Ikuskaritza Zerbitzuko langileak.
- Baliabide ekonomikoen estimazioa: Ikuskaritza Zerbitzua.

Zentroetako Arreta eta Zaintzak ikuskatzea

- Beharrezko baliabideak:
 - Dependentsia egoeran dauden pertsonen arreta emateko zentroetako arreta eta zaintzen ikuskapena Zentroen Zerbitzuak egingo du **barneko lan-taldean** bitartez, eta gutxienez hauek egongo dira bertan:
 - Nagusien arloan: Ataleko burua, ataleko bi mediku eta beharrezko administrazio-laguntza hitzartutako kontratuetan aurreikusitako Banakako Arreta Planetako berrikuspena egiteko.
 - Desgaitasunaren arloan: Ataleko burua, medikua, arloko psikologoa eta arreta planak berrikusteko beharrezkoa den administrazio-laguntza.
 - Adingabeen zentroetako arreta eta zaintzen ikuskapena Umeen Zerbitzuak egingo du **barneko lan-taldean** bitartez, eta gutxienez hauek egongo dira bertan: Zerbitzuko burua, ataleko hiru buruzagitza, kasuaren koordinatzaileak eta beharrezko administrazio-laguntza Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze planak berrikusteko.
 - Horrez gain aurreikusi da **azterketa medikoak eta analisi sozialak** egiteko ²² **kanpoko kontratazioak** gauzatzea, eta hala, Arreta Plan Indibidualen berrikuspena osatu egingo da.
- Baliabide ekonomikoen estimazioa:
 - Azterketa medikoak egiteko aurreikusitako kanpoko kontratazioen kostu estimatua 93 eurokoa da azterketa bakoitzerako, eta 41,65 eurokoa analisi sozial bakoitzerako. 2017rako planteatutako helburua kontuan hartuz, 2017rako kostua gutxi gorabehera 125.000 eurokoa litzateke.
 - Garapen informatikoak; gaur egun ez dago jarraipen hau egiteko beharrezkoak diren baliabide informatikoen balorazio espezifikorik.

²² Gizarte langileek eginda.

Etxean ematen diren zaintzak ikuskatzea

- Beharrezko baliabideak:
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren **baliabide propioak**, Prestazio Zerbitzuko lau langilez osatutako taldearen bitartez.
 - Horrez gain, **etxean bisitak egiteko**, azterketa medikoak egiteko eta etxean zaintzak egitea baimentzen duen gizarte langilearen balorazioa egiteko **kanpoko kontratazioak** egitea aurreikusi da.
 - Era berean, etxeetako zaintzak ikuskatzeko hasierako planteamenduarekin bat eginez aurreikusi da Bizkaiko Foru Aldundiaren **Call Center Zugaztelen** lankidetzaz izatea Bizkaian PECEF jasotzen dutenenen **urteko jarraipena egiteko telefono bidez**.
 - **Aurreikusitako garapen informatikoak** Bizkaiko Foru Aldundiaren eta beste erakunde batzuen (Adibidez Gizarte Segurantzak, tokiko erakundeak, etab) informazio-iturrietan beharrezkoak diren baldintzak berrikustea errazagoa egiteko.

- Baliabide ekonomikoen estimazioa:
 - Bisitak egiteko aurreikusitako kanpoko kontratazioaren kostu estimatua 127 eurokoa da bisita bakoitzerako (azterketa medikoa / gizarte langilea). Jasotzaileen % 25 aztertze urteko helburua kontuan hartuz, aurreikusitako urteko kostua 475.000 euro ingurukoa da.
 - Garapen informatikoak: gaur egun ez dago beharrezko garapen informatikoei buruzko balorazio espezifikorik, eta beraz, lanean aurrera egin behar da behar espezifikoak zehazteko.
 - Lankidetzaz Call Center Zugaztekin²³.

Prestazio sozialen ikuskapena

- Beharrezko baliabideak:
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren **baliabide propioak** PEAP, PNC eta LISMI jasotzen duten pertsonen jarraipen pertsonalizatua egin dezaketen barneko lan-taldearen bitartez.

- Baliabide ekonomikoen estimazioa:
 - Prestazio sozialen berrikuspeneko eraginkortasuna gehitzeko beharrezkoa litzateke **garapen informatiko espezifikoak** jorratzea prestazioen berrikuspenak errazteko, arintzeko eta automatizatzeko.

²³ Beharrezko baliabideen planteamendua eta balorazioa egin behar dira.

Hitzarmenak eta diru-laguntzak ikuskatzea eta horien jarraipena egitea

- Beharrezko baliabideak:
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren baliabide propioak Auditoretza Zerbitzuko barneko lantaldeen bitartez, agindutako kanpoko lanen jarraipena eta hobekuntza proposamenak egiteko.
- Baliabide ekonomikoen estimazioa:
 - Egindako auditoretzetan diru-laguntzen kopurua % 10era igotzeko zerbitzu barnean jarduketa-eremu horri zuzendutako **zenbatekoa gehituko** da, eta hala, **landa-lan** gehiago kontratatu ahal izango dira.

<i>Jarduketa-multzoak</i>	<i>Beharrezko baliabideak</i>
<i>Gizarte Zerbitzuetako Zentroen ikuskapena</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritza Zerbitzuko langileak
<i>Zentroetako Arreta eta Zaintzak ikuskatzea</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Langile propioak • Kanpoko enpresa kontratatzea: Azterketa medikoak / analisi sozialak (gizarte langilea) • Garapen informatikoak
<i>Etxean ematen diren zaintzak ikuskatzea</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Langile propioak • Kanpoko enpresa kontratatzea: Etxeetan egindako bisitak • Zugaztel – Call Centerrekin lankidetzak: Telefono bidezko jarraipena • Garapen informatikoak / Elkarreragingarritasuna
<i>Prestazio sozialen ikuskapena</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Langile propioak • Garapen informatiko espezifikoak
<i>Hitzarmenak eta diru-laguntzak ikuskatzea</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Langile propioak • Kanpoko auditoretzak • Inpaktu-ebaluazioak

6. Plana ezartzeko egutegia

Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko 2017-2019 Plan Orokor honen egikaritzea eta ezarpena 2017. urtetik aurrera gauzatuko da, eta 2018an zehar jarduketamultzo bakoitzean ikuskatzeko zerbitzu eta/edo prestazio berri gehiago txertatuko dira.

Hurrengo egutegian jarduketamultzoen arabera banatu dira urtero berrikusiko diren prestazio /zerbitzuen txertaketa:

		2017	2018	2019
1. Gizarte Zerbitzuen Zentroetako Ikuskapenak				
NAGUSIAK	Nagusien eguneko zentroak	✓	✓	✓
	Nagusien egoitzak	✓	✓	✓
	Etxebizitza komunitarioak	✓	✓	✓
DESGAITASUNA duten PERTSONAK	Arreta Goiztiarreko Zentroak-AGEHT-		✓	✓
BABESGABETASUNA	Adingabekoen zentroak	✓	✓	✓
	Emakumeen egoitza zentroak	✓	✓	✓
BAZTERKETA	Gizarte inklusioko eguneko zentroa	✓	✓	✓
	Baztertzeko egoeran dauden pertsonen egoitzak	✓	✓	✓
2. Arretaren ikuskapena eta Zentroetako zaintzak				
NAGUSIAK	Nagusien eguneko zentroak	✓	✓	✓
	Nagusien egoitzak	✓	✓	✓
DESGAITASUNA duten PERTSONAK	Zentro okupazionalak		✓	✓
	Desgaitasuna duten Pertsonen Eguneko Zentroak	✓	✓	✓
	Desgaitasuna duten Pertsonen egoitzak	✓	✓	✓
	Gaixotasun mentalak dituztenen egoitzak	✓	✓	✓
BABESGABETASUNA	Adingabeen egoitzak	✓	✓	✓
BAZTERKETA	Baztertzeko egoeran dauden pertsonen egoitzak	✓	✓	✓
3. Etxeetako Zaintzen Ikuskapena				
DEPENDENTZIA/AUTONOMIA	PECEF	✓	✓	✓
4. Prestazio Sozialen Ikuskapena				
DESGAITASUNA duten PERTSONAK	LISMI	✓	✓	✓
	PNC	✓	✓	✓
DEPENDENTZIA/AUTONOMIA	Laguntza pertsonalerako prestazioa (PEAP).	✓	✓	✓
	PECEF	✓	✓	✓
BAZTERKETA	Gizarte Ongizateko Funtza	✓	✓	✓
	Inklusio Sozialerako Laguntza Berezia	✓	✓	✓

Helburuen eta ezartzearen laburpen-koadroa (Setik 4 multzo)

Hauek dira laburtuta **Zerbitzu eta Prestazio Sozialak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan Orokorrean** aurreikusitako lehenengo 4 jarduketa-multzoetarako zehaztutako helburu zehatzak. **Horiek hasierako fasean gauzatuko dira (2017. urtean)** edo plana garatzeko aurreikusitako denbora-esparruko hurrengo faseetan.

		1. Gizarte Zerbitzuen Zentroetako Ikuskapenak			2. Arretaren ikuskapena eta Zentroetako zaintzak			3. Etxeetako Zaintzen Ikuskapena			4. Prestazio Sozialen Ikuskapena		
		Zentro kopurua	Ikuskapenaren irismena	Ikuskapenaren helburua	Plaza publikoak	Ikuskapenaren irismena	Ikuskapenaren helburua	Jasotzaileak	Ikuskapenaren irismena	Ikuskapenaren helburua	Jasotzaileak	Ikuskapenaren irismena	Ikuskapenaren helburua
NAGUSIAK (PPMM)	Nagusien eguneko zentroak	53	%100	53	1.363	%10	136						
	Nagusien egoitzak	147	%100	147	5.196	%10	520						
	Etxebizitza komunitarioak/Tutoretzapeko apartamentuak	69	%100	69									
DESGAITASUNA duten PERTSONAK (PcD)	Zentro okupazionalak				1.405	%10	141						
	Desgaitasuna duten Pertsonen Eguneko Zentroak				1.041	%10	104						
	Desgaitasuna duten Pertsonen egoitzak				1.401	%10	140						
	Gaixotasun mentalak dituztenen egoitzak				223	%10	22						
	Arreta Goiztiarreko Zentroak-AGEHT-LISMI	40	%100	40							140	%100	140
	PNC										6.764	%100	6.764
DEPENDENTZIA / AUTONOMIA	Laguntza pertsonalerako prestazioa (PEAP).										78	%100	78
	PECEF							15.023	%25	3.756	15.023	%25	3.756
BABESGABETASUNA	Adingabekoen zentroak	49	%100	49	1.175	%100	1.175						
	Emakumeen egoitza zentroak	9	%100	9									
BAZTERKETA	Gizarte inklusioko eguneko zentroa	31	%25	8									
	Baztertze egoeran dauden pertsonen egoitzak	37	%25	9	348	%10	35						
	Gizarte Ongizateko Funtsa (GOF)										480	%100	480
	Inklusio Sozialerako Laguntza Berezia (AEIS)										224	%100	224
Ikuskapeneko Plan Orokorra - Hasierako fasea 2017		Ikuskapena egin zaien zentroak		344	Urteko jarraipenak		2.097	Urteko bisitak		3.756	Urteko berrikusteak		11.442
Ondorengo faseak 2018/2019		Ikuskapen osagarriak		40	Jarraipen osagarriak		176						
Ikuskapeneko Plan Orokorra (urtekoa)				Guztira	384	Guztira	2.273	Guztira	3.756	Guztira	11.442		